

“Kerja” - Funtsezko jarduerak

Gure enpresaren jarduerarik garrantzitsuenetarikoa ikasleak kontratatuko dituzten enpresa eta partikularrekin harremanak eratzea da, horretarako enpresa askorekin harreman estuak sortu eta udaletan gure burua ezagutzera eman behar dugu. Izan ere, hori da gure zerbitzuaren oinarria, lan egiteko nahia duten ikasleak daudelako, baina haiek kontratatzeke prest eta haien interesekin bat datozen enpresa gutxi baitaude.

Beste alde batetik, oso garrantzitsuak dira plataforma edo sareko jarduerak, appa edo web gunearen bidez harremanetan jartzen ditugulako kontratzaileak eta lanpostu baten bila dauden ikasleak, baita interesatuta egon daitezkeenak erakartzeko ere, negozioa sustatuz.